



IKASBIDE ELKARTEA

Euskal Herriko hizkuntza eta kultura sustatzeko eta zaintzeko ahaleginean, Ikasbide elkarteak kultur jarduerak bultzatzen ditu betidanik, hala nola euskal dantzak, literatura, kantaldiak, tailerrak, bertsoak, gastronomia... eta nola ez, Amara Berri auzoko jaiak.

2020-2021 urtean, pandemia dela eta luze eta arrotza izan den honetan, elkarteak dituen erraldoiak, zaharrak eta astunak direlarik, berriak egiteko aukeraz hitz egin zen.

Elkartean bertan erraldoi bikote bat eraikitzea erabaki zen, eta horretan hasi ginen.

Betidanik itsasoarekin eta arrantzarekin harremana izan duen Euskal Herriaren omenez, mundu horrekin lotutako bi figura eraiki ziren.

Lan epe luze baten ondoren jaio ziren bi erraldoi hauek : Joxe, euskal arrantzale eta bale arpoilaria eta Maritxu, saregile aditua.

Aipatzekoa da elkartearen inguruan kale asko daudela itsasoari erreferentzia egiten diotenak.

- Ontziola Kalea / Astilleros, Calle de los (1962)
- Baleazaleen Kalea / Balleneros, Calle de los (1962)
- Donostiar Kofradien Plaza / Cofradías Donostiaras, Plaza de las (1962)
- Euskal Kortsarioen Kalea / Corsarios Vascos, Calle de los (1962)
- Ignazio Merkader Plaza / Ignacio Mercader, Plaza de (1993)
- Marinel Plaza / Marinos, Plaza de los (1962)
- Merkatari Plaza / Mercaderes, Plaza de los (1962)
- Ternuako Arrantzaleen Kalea / Pescadores de Terranova, Calle de los (1962)
- Gran Soleko Arrantzaleen Kalea / Pescadores del Gran Sol, Calle de los (1981)

Jai hauetaz berriz gozatzeko aukera izango dugulakoan, aurreko urteetan bezala ospatzera gonbidatzen zaituztegu.

Gora Ikasbide, Gora Amara Berri!!

Jimmy